

PROBA ESPEZIFIKOA

2010eko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Proposatzen diren zortzi ariketetatik lauri erantzun.
(Galdera bakoitzak 2,5 puntuko balioa du)

1. Filosofo presokratikoei dagokienez:
Esan egia ala gezurra den. (Arrazoitu erantzuna):
Pitagorasek esan zuen:
 - Mundua gauza kaotikoa da.
 - Kosmosaren egitura matematikoa da.
2. Sokratesen filosofiari dagokionez, adierazi zer den metodoa eta zein diren metodoaren funtsezko parteak.
3. Zer da eskolastika eta zein dira haren funtsezko ezaugarriak?
4. Laburbildu Ockham-en biografiaren datu aipagarrienak, eta nabarmendu XIV. mendeko krisia eta problematika islatzen dituzten alderdiak.
5. Descartes-en filosofiari dagokionez, azaldu eta iruzkindu haren lehen printzipioaren esanahia: "Pentsatzen dut; beraz, banaiz".
6. Adierazi eta laburbildu Industria Iraultzaren funtsezko eta berezko faktoreak eta Marxen filosofian eta biografian izan zuten eragina.
7. Azaldu Nietzscheren *Honela mintzatu zen Zaratustra* obraren alderdirik adierazgarrienak, eta esplikatu han agertzen diren Jainkoaren heriotzaren inguruko sinbolo hauek:
 - a) Gamelua
 - b) Lehoia
 - c) Haurra
8. Iruzkindu Sartre-en filosofiaren adierazpen hauen esanahia:
 - a) "Gizakia alferrikako pasioa da".
 - b) "Askatasunera kondenatuta gaude".



EBAZPENA: FILOSOFIAREN HISTORIA (2010eko maiatza)

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Proposatzen diren zortzi ariketetatik lauri erantzun.
(Galdera bakoitzak 2,5 puntuko balioa du)

1. Filosofo presokratikoei dagokienez:

Esan egia ala gezurra den. (Arrazoitu erantzuna):

Pitagorasek esan zuen:

- **Mundua gauza kaotikoa da.**
- **Kosmosaren egitura matematikoa da.**

Erantzuna:

• **Mundua gauza kaotikoa da:** ez da egia, mundua ez da kaotikoa. Mundua ordenatua da (kosmosa, kaosik eza): munduak egitura harmonikoa du, musikak bezala, zenbakizko proportzioetara ekar daitekeena.

• **Kosmosaren egitura matematikoa da:** egia da kosmosaren egitura edo forma matematikoa dela. Galileok geroago ondorioztatu zuen moduan: "Unibertsoak matematikaren hizkuntza baliatzen du". Zenbakien bidez gauza guztiak azaldu daitezke. Zenbakiak dira gauza guztien sorburua.

2. Sokratesen filosofiari dagokionez, adierazi zer den metodoa eta zein diren metodoaren funtsezko partea.

Erantzuna:

Metodo (*meta-odós*) hitzak "-ranzko bidea" esan nahi du. Sokratesentzat metodoa da egia bilatzeko eta aurkitzeko jarraitu behar den bidea. Metodo horrek hiru zati ditu:

• **Ironia:** metodoaren alderdi negatiboa da. Nork bere ezjakintasuna onartzea da: hizketakideari ikusarazi behar zaio zinez ez dakiela deus ere ("Bakarrik dakit ez



dakidala ezer"). Horrek aurrez aurre jartzen ditu Sokrates eta sofistak (guztia zekiten jakintsuak). Hain zuzen ere, hortxe jotzen du ironia sokratiko zorrotzak: guztia dakitela uste duten sofista horiek ez dakite ezta ez dakitela ere.

- Maieutika: metodoaren alderdi positiboa da. Nork bere ezjakintasuna eta akatsak onarturik soilik saiatu ahalko da haiak gainditzeko, egia bilatzeko. Egiaz erditzea edo egia argitzea da, behin norberaren ezjakintasuna onartuta. Elkarrizketaren bidez lortzen da hori, hau da, izan dezakegun dogmatismoa (ziurtasuna) hankaz gora jarriko duten galderen bidez. Nork bere barruan zeraman egiaz erditzen laguntzea zen Sokratesen emagin-eginkizuna. Elkarrizketa da bidea. Ez da harritzekoa, beraz, Platonen lanak *elkarrizketak* izatea, Sokratesen dizipulua baitzen.

- Definizioa: definizioa gauzen muinera (esentziara) heltzea da. Aurkitu den egia hitzez adieraztea da helburua. Gauzen esentzia adierazten duen ideia edo kontzeptu unibertsala bilatzea. Benetan dena edo existitzen dena da Sokratesentzat ideia, eta asmakari horrek eragin erabakigarria izan zuen Platonengan. Ideien teoria da filosofia platonikoaren giltzarria.

3. Zer da eskolastika eta zein dira haren funtsezko ezaugarriak?

Erantzuna:

Inperioaren kultura gordetzeko, berreskuratzeko eta transmititzeko lan nagusia Elizak egin zuen, batik bat monasterioen bitartez. Monasterioak monjeen komunitateak ziren, eta otoitzean, ikasketetan eta lanean oinarritutako arauen arabera bizi ziren. Monasterio haien eta katedral-eskolen gerizan sortu zen filosofia eskolastikoa. Eskolastika latinezko *schola* hitzetik dator, eta, hasieran, adierazten zuen Erdi Aroko eskoletan landutako jakintza, maisu baten gidaritzapean (*scholasticus*) irakasten zena. *Eskolastika* terminoa XI. eta XIV. mendeen artean sortu zen, eta Erdi Aroko kristau-filosofia izendatzeko erabili ohi da. XIII. mendea, Tomas Akinokoarekin, eskolastikaren gorenaldizat jotzen da; XIV. mendean, ordea, krisian sartu eta gainbehera etorri zen.

Filosofia eskolastikoaren funtsezko ezaugarrietako bat izan zen fedearen egiak arrazoimenaren bidez sakontzea, edo, nahi bada, gizakiari agertutako egia ulertaraztea. Hori dela eta, lotura estua izan zuen irakaskuntzarekin, eta nabarmen didaktikoa izan zen, eskolastikoa. Beren helburua lortzeko, metodo eskolastikoa erabili zuten. Metodo hark ondo bereizitako bi une zituen:

- a) *Lectio*: maisuak egindako azalpena; Bibliako pasarte bat, edo Boezioren, edo Aristotelesen testu bat irakurtzen zuen, eta, ondoren, iruzkinak egiten zituen.



b) *Disputatio*: maisuak eta ikasleek, eskema formal eta zurrun bati jarraiki, tesi baten aldeko eta kontrako arrazoiak ematen zituzten. Tesia, eskuarki, *lectio*an aurkeztu ohi zuten maisuak.

4. Laburbildu Ockham-en biografiaren datu aipagarrienak, eta nabarmendu XIV. mendeko krisia eta problematika islatzen dituzten alderdiak.

Erantzuna:

Gilen Ockham-ekoa (1298 – 1349). Monje ingeles famatu hau hiru hiritan bizi izan zen: Oxford-en, Avignon-en eta Munich-en. Frantziskotarren ordenan sartu ondoren, Oxforden ikasi zuen. Teologia irakasteko gaitasun-agiria lortu ez bazuen ere (horregatik deitzen zuten *Venerabilis Inceptor* —iniziatu beneragarria—), Oxforden eta Londresen aritu zen irakasle. 1324. urtean, Aita Santuaren Avignongo kuriaren aurrean aurkeztera behartu zuten, Oxfordeko Unibertsitateko kantziler ohi batek jarritako heresia-salaketei erantzuteko; alabaina, prozesua egin bitartean, beraren egoera aldatuko zuten bi gertakari jazo ziren: Luis Bavariakoak enperadorearen botere zibila Aita Santuaren gaintik zegoela aldarrikatu zuen, eta Joan XXII.a Aita Santuaren eta frantziskotarren artean “pobreziaren gerra” delakoa piztu zen. Ockham Bavariara joan zen; 1328. urtean, Munichen bizi zela, enperadorearen alde jarri zen, eta handik aurrera gai politikoei buruz idatzi zuen.

Hauek dira XIV. mendeko krisiaren eta problematikaren funtsezko faktoreetako batzuk:

- Feudalismoaren krisia.
- Eskolastikaren krisia.
- Izurritea, gosea eta gerra, hilkintza handia eragin baitzuten.
- Enperadorearen (botere politikoaren) eta Aita Santuaren (botere erlijiosoaren) arteko gatazka; era berean, arrazoimenaren eta fedearen arteko loturak pitzatu egin ziren. Orduetik aurrera ez zuten elkar hartuta jardun, eta haustura izan zen.
- Mendebaldeko zisma: Aita Santua Erromatik Avignonera aldatu zen, Filipe IV.ak hala eskatuta.
- Kontzientzia demokratikoaren nolabaiteko esnatzea: zismen eta kontzilioen ondorioz, Aita Santuaren autoritateak behera egin zuen; parlamentuak erregearen autoritateari, botere absolutuari, aurka egiten hasi ziren...

5. Descartes-en filosofiari dagokionez, azaldu eta iruzkindu haren lehen printzipioaren esanahia: "Pentsatzen dut; beraz, banaiz".



Erantzuna:

Descartesek, guztia zalantzan jarriz, iritzi guztiak aienarazi ditu, kolokan utzi du ziurtasun oro; guztia, fedearen egiak eta arau moralak izan ezik. Alabaina, ziurtasun batek zalantzaren oldarraldi guztiei eusten die, ez dago hartaz duda egiterik. Guztiari buruz egin dezaket zalantza, baina ezin dut zalantzarik egin zalantzan nabilela. Zalantza egiten badut, pentsatzen dut, eta pentsatzen badut, banaiz. "Pentsatzen dut; beraz, banaiz: *Cogito, ergo sum*".

Printzipio kartesiar horren aurrekaria San Agustinen filosofian aurkitu dezakegu: "*Si fallor, sum*: Erratzen banaiz, banaiz". Agerikoa da San Agustinek Descartesengan izan zuen eragina. Printzipio kartesiar famatua jada agertzen zaigu, nolabait, San Agustinen filosofian. Egia bazela ukatzen zuten eta gizakia erratuta zebilela esaten zuten akademikoekin zituen eztabaidetan, honako hau argudiatu ohi zuen San Agustinek: "Ondo da, aitortzen dizuet beti erratuta nabilela. Baina horrek badu egiazko zerbait: erratzen banaiz, banaiz". Errakuntza aitzakia hartuta, bere existentziaren ziurtasuna aurkitu zuen. Nabaria da San Agustinen eta Descartesaren arteko antzekotasuna. Guztiari buruz egin dezaket zalantza, baina sekula ezin izango dut zalantzarik egin zalantzan nabilela. Jainkorik ez dela pentsa dezaket, mundurik ez dela, gauzak ere ez direla... Baina ezin dut pentsatu ezen ni, gauza horiek pentsatzen ari dena, pentsatzen ari naizen aldi berean, ez naizela. Zalantza egiteko ezinbestekoa da pentsatzea; eta, pentsatzeko, ezinbestekoa da izatea. Printzipio horren oinarri sendotik abiatuta eta ziurtasun eztabaidaekin horren gainean eraikiko du bere filosofia guztia. "Pentsatzen dut; beraz, banaiz" printzipiotik abiatuta, gainerako egia guztiak deduzituko ditu.

"Pentsatzen dut; beraz, banaiz" printzipioaren analisisa:

Lehenengo analisiak bi elementu erakusten dizkigu, pentsatzea eta izatea, txanpon beraren bi aldeak balira bezala. Pentsamendua eta existentzia elkarri loturik daude, ezinbestean. "Pentsatzen dut; beraz, banaiz" ez da "pentsatzen badut, izango naiz" motako silogismo edo arrazonamendu bat. Hala izango balitz, irudiko luke lehenik pentsamendua dela, eta ondoren, existentzia. Descartesaren arabera, existentzia ez da pentsamendutik deduzitzen, biek ala biek aldi berean igartzen edo atzematen dute elkar. Inolako dedukziorik egin gabe atzematen edo igartzen dut ezin dudala pentsatu, baldin eta ez banaiz. Ideia argia da, eta desberdina: nabaria da ideia, berehala gailentzen da, arrazonamendurik edo frogapenik gabe. Esperientzia zuzena da, eta inolako zailtasunik gabe azaltzen da. Egia aldaezina da, zalantzarik egin ezin daitekeen zerbait. Hortik deduzituko du Descartesek bere filosofia guztia. Ziurra eta agerikoa da, ez dago hartaz zalantzarik egiterik.

6. Adierazi eta laburbildu Industria Iraultzaren funtsezko eta berezko faktoreak eta Marxen filosofian eta biografian izan zuten eragina.



Erantzuna:

Artisau-langintzatik industria-produkziorako igaroaldia hartzen da Industria Iraultzatzat.

Hauek izan ziren, beste batzuen artean, industriarako aldaketa ekarri zuten faktoreak:

- Liberalismoa: estatuaren politika ez esku-hartzailea du oinarri; mesede egin zion industrializazioari, ez baitzien burgesiaren ekimen partikularrei oztoporik jarri.
- Populazioaren hazkundera: heriotza-tasa txikiagotzearen ondorio zuzena izan zen; horren ondorioz, fabrikek funtzionatzeko behar zuten beste langile izan zuten. Hazkunde horri esker, langileak sobera ziren, eta horrek eskulana merkatzen lagundu zuen.
- Berrikuntza teknikoak (lurrun-makina eta abar) erabakigarriak izan ziren produkzioa handitzeko. Haiei esker, gehiago fabrikatzen zen, denbora eta langile gutxiago erabiliz gainera.
- Kapitala: behar-beharrezkoa zen, fabrika bat sortzeko eta makinak erosteko inbertsio handia egin behar baitzen.

Faktore horiek guztiak aldi berean gertatzeak ahalbidetu zuen Industria Iraultza gertatzea eta kapitalismoa finkatzea. Horrek guztiak, maila sozialean, klaseen arteko desberdintasun sakon bat eragin zuen, enpresaburuen eta proletarioen artean batik bat: desberdintasun haiek izan ziren langile-mugimenduaren eta XIX. mendearen amaierako iraultza sozialen haztegia. Esan liteke filosofia marxista faktore horien arabera idatzi zela.

7. Azaldu Nietzscheren *Honela mintzatu zen Zaratustra* obraren alderdirik adierazgarrienak, eta esplikatu han agertzen diren Jainkoaren heriotzaren inguruko sinbolo hauek:

- a) Gamelua
- b) Lehoia
- c) Haurra

Erantzuna:

Zaratustraren mezua “eguerdiko filosofia” deituriko aldian idatzi zuen Nietzschek. Hura da beraren pentsamenduaren unerik gorena, jasoena eta argiena; eguerdia, alegia. *Honela mintzatu zen Zaratustra* (1883-1885) da haren lanik oinarrizkoena, poetikoena eta profetikoena. Biblia Berria izatea du helburu: Zaratustrak ebanjelio berri bat emango du aditzera, moral berri bat.

Obrak hiru zati ditu:

- a) Lehen zatian, Jainkoaren heriotza eta Supergizakia deskribatzen ditu.
- b) Bigarreanean, botere-nahia.



c) Hirugarrenean, etengabeko itzulera.

Obra honetan hiru transformaziori buruz hitz egiten digu, hobeto uler dezagun "Jainkoaren heriotza" k zer esan nahi duen. Sinbolo hauek erabiltzen ditu Nietzschek:

a) Gamelua: gizaki sinestunaren sinbolo da. Gamelua basamortuko animalia da, eta zama handiak garraiatzen ditu. Obedientzia eta sakrifiziorako ahalmena irudikatzen ditu. Belaunikatu egiten da aginduen ohol zaharrak edo dekalogoak kargatu diezazkioten, eta ezerezaren basamortuan dabil. "Egin behar duzu" aginduaren menpe dago.

b) Lehoia: erlijioaren balioak suntsitzen dituen gizakiaren sinbolo da. Badaki jainkoa hil dela. Jainkoaren heriotzak uzten duen hutsuneari aurre egiteko behar diren indarra eta kemena irudikatzen ditu. Oihaneko erregea da, eta eginbeharraren kontra oldartzen da. Gameluaren "egin behar duzu" haren aurrean, "nahi dut" esaten du, burujabe.

c) Haurra: sormenaren eta inozentziaren sinbolo da. Supergizakiaren espiritua da, balio berriak ezartzen ditu, balio zaharrek erortzean utzi zuten hutsunea betetz. Haurrak balio berriak sortzeko gaitasun ludikoa irudikatzen du.

8. Iruzkindu Sartrearen filosofiaren adierazpen hauen esanahia:

- a) "Gizakia alferrikako pasioa da".
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude".

Erantzuna:

a) "Gizakia alferrikako pasioa da". Kontzientzia edo "nor bere baitarako izatea" ez da ezer, ezereza da, asebetetzeko gainerako gauzen premia duen grina. Kontzientziak asmo-izaera du: objekturantz jotzeko joera du. Kontzientziak gainerako gauzen modukoa izan nahi du, baina alferrikako nahia da, porrotera kondenatuta dago. Horregatik da gizakia alferrikako pasioa, desira asegaitza, bukatu gabeko proiektua...

b) "Askatasunera kondenatuta gaude". Existitzea, funtsean, hautatzea da. Hautatzea askatasunaren ondorio bat da, gizakia izaki askea da, erro-errotik. Sartrek dioen moduan, "askatasunera kateatuak gaude, kondenatuak", eta ezin diogu aske izateari utzi. Askatasunaren bidez geure bizitza hautatzen dugu. Existentziak hautatzera behartzen gaitu, zer izan nahi dugun erabakitzerat: "...Hautatzeari uko egitea ez hautatzea hautatzea da... ez gara aske aske izateari uzteko" (J.P. Sartre: *Izatea eta ezereza*).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2010

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

ZUZENTZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Atal honetan, probak zuzentzeko orientabide batzuk ematen dira. Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du, hiru faktore hauek kontuan izanda: osotasuna (1,5), koherentzia (0,75), sendotasuna (0,25).

1. **Osotasuna:** zuzentzeko oinarrizko gidaria izango da irakasgaiaren egitura, osotasun kontzeptual eta historikoa —gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak—. Beraz, erantzuna zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan, hainbat handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:
 - Σ Erantzunaren edukia soilik hartuko da kontuan (esaten dena), eta esaten ez dena ez da kontuan hartuko. Beraz, puntuak metatu egiten dira beti; ez dira inoiz kentzen.
 - Σ Galderan ageri den filosofiaren edo/eta garaiaren ideia nagusietara pixkanaka hurbiltzea; hori da sakontasuna.
 - Σ Zenbat eta ideia edo/eta gorabehera historiko gehiago aipatu, erantzuna hainbat zabalagoa dela ulertuko da.
2. **Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikoki ordenatzen dira lehenetsun jakin baten arabera —epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...—. Nolanahi ere, erantzunak ibilbide ulergarri bati jarraitu behar dio.
3. **Sendotasuna:** kontraesanik ez izatea —zerbait baieztatzea eta, gero, alderantzizkoa edo harekin batere erlaziorik ez duen zerbait ez adieraztea; filosofiak ez nahastea, eta aldi historikoak ez nahastea, eta abar—.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2010eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2010

***HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA***

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
HARREMANA**

| GALDERA | EZAGUTZA-ADIERAZLEA |
|----------------|----------------------------|
| 1 | 1.4 |
| 2 | 2.4 |
| 3 | 5.2 |
| 4 | 5.7, 5.9 |
| 5 | 6.5 |
| 6 | 8.1, 8.2 |
| 7 | 9.2, 9.4, 9.5 |
| 8 | 10.2, 10.4 |